
AMELI
ipuin kontalaria

AMELI

ipuin kontalaria

## Nor da Ameli?

AMAIA ELIZAGOIEN VARELA (Oronoz, 1994): Ipuinak entzutea bezainbertze gustatzen zaio ipuinak kontatzea, eta horretan dabil 2015etik. Bakarka nahiz musikariekin batera aritzen da kontalari Euskal Herrian barrena, entzun nahi dituenari ipuinak eta istorioak kontatuz.

Ikasketei dagokienez, Haur Hezkuntzako goi mailako zikloa eta gradua egin ditu, eta orain Bartzelonako antzerki laborategian jarraitzen du ikasten. Horrez gain, berriki arte telebistan eta irratian ere aritu da aurkezle lanetan, baina gaur egun kontalaritzatik bizi da. Iaz Amaiur ipuina argitaratu zuen (Begoña Durrutyk ilustratua). Ahozkotasunarekin eta gure herriaren memoriarekin sorgindua bizi da Ameli, ikasteko eta aurkitzeko geratzen zaionaren bila beti.

## Zer da Ameli eta Xirrikituen jostunek?

Ameli eta Xirrikituen jostunek ipuina eta musika uztartzen dituen proiektua da eta gaur egun, musikarialtzia Itziar Teietxea dugu. Ipuina da protagonista nagusia, eta, musikaren bitartez, publikoa istorioan bildu, murgildu eta gurekin eramaten dugu.

Gure lana istorioaren eta publikoaren arteko zubia egitea da. Gure helburua da ipuin oro den bidaian gidari izatea  eta ipuinak berez duen indarra transmitititzea. Ipuinen bitartez, gure herrian eta balore batzuetan sustraitzen gara. Helburu horiek lortzeko, gure ustez, gozamenak eta jolasak bertan behar dute, eta horretan gabiltza.





TTIKITTOAK · TTIKITTOAK · TTIKITTOAK · TTIKITTOAK ·
12-36
HILABETE



## Itsasoko sekretuak

Itziar eta Amaiak itsasoan dute hitzordua. Hondartzarako motxila prestatu eta bertara joan dira. Itsasoaren barrenean kutxa handi bat topatu dute: altxor bat ote? Jakin nahi al duzue zer dagoen barruan? Seguru ez zaretela bidaia egiteaz damutuko!

Antzerkitxo honetan ahozkotasunari lotutako baliabideak erabiliko ditugu (poesia, kanta, bertsoa, aho korapiloak, etab.). Horrez gain, musikak eta txotxongiloek ere protagonismoa edukiko dute, baita material sentsorialak ere.



## Baserriko abenturak

Itziar eta Amaiak aitona-amonen baserrian pasako dute uda. Zein ederr den animalien artean bizitzea. Baina ez pentsa, haien komeriak ere edukitzen dituzte, batez ere gurasoak falta direnean. Obra honen bitartez, baserriko sekretuak, istorioak eta ohitura batzuk ezagutuko ditugu. Zuk ere etorri nahi duzu gurekin baserrira?

Antzerkitxo honetan, ahozkotasunari lotutako baliabideak erabiliko ditugu (poesia, kanta, bertsoa, aho korapiloak, etab.). Horrez gain, musikak eta txotxongiloek ere protagonismoa edukiko dute, baita material sentsorialak ere.

KOXKORRAK · KOXKORRAK · KOXKORRAK · KOXKORRAK ·
3-6 URTE



## Itsasbazterreko ipuinak

Hurbildu al zarete sekula Euskal Herriko kostaldera? Portura joaten bazarete, arrantzaleak ikusiko dituzue, eta, ongi begiratzen baduzue, akaso, piraten itsasontziren batekin topatuko zarete. Guk zorte hori eduki genuen duela gutxi, Uhaina piratarekin elkartu ginen, eta bere istorioekin txunditu. Orain istorioak kristalezko botila batean bidaltzen dizkigu eta istorio onenak zuretzako gorde ditugu. Nabigatzeko prest?

Kontaketa honen bitartez, feminismoa, hezkidetza, laguntasuna, inklusioa eta arrazakeria landuko ditugu, besteak beste.



## Habiako ipuinak

Habiak maite ditugu, eta arrautzak kraskatzen direnean bizitza nola jaiotzen den bizitza nola jaiotzen den ikustea. Eta aurrekoan gertatutakoa magikoa izan zen. Arrautzak puskatu zirenean txioka hasi zitzaizkigun istorioak, eta guk entzun egin genituen. Orain gure buruak hegan dabiltza ipuin horiekin, eta guk zurekin ibili nahi dugu zeruan barrena. Hegaldia abiatzeko prest?

Kontaketa honen bitartez, mitologia, feminismoa, hezkidetza, laguntasuna, inklusioa eta arrazakeria landuko ditugu, besteak beste.

HANDITTOAK · HANDITTOAK · HANDITTOAK ·

7–12
URTE



## Ez esan inori

Euskal Herrian istorio asko daude, batzuk oso ezagunak, besteak ez horrenbeste. Erraten dutenez, kondaira berezienak gogotik bilatu ondotik topatzen dira. Guk bilaketari ekin genion duela zenbait urte, eta dagoeneko jaso ditugu altxor batzuk. Sekretuak izan dira orain arte, baina zuekin partekatu nahi ditugu. Prest abentura berri honetarako?

Kontaketa honen bitartez, kondairak, feminismoa, hezkidetza, laguntasuna, inklusioa eta arrazakeria landuko ditugu, besteak beste.



## Ainairak

Ainairak edo enarak txori migratzaileak dira, baina ez hori bakarrik: duela mende bat hala deitzen zitzaien Erronkariko emakumeei ere. Herria utzi eta Zuberoara joaten ziren udazkenetik udaberrira arte. Kontaketa honetan, Maulera bidean elkarri kontatzen zizkioten istorioak kontatuko dizkizuegu eta haiekin eginen dugu bidaia, bide estu eta ilunetatik batzuetan, besteetan berriz paraje ederretatik. Goazen gure herria hobeki ezagutzera!

Kontaketa honen bitartez, kondairak, ohitura zaharrak, feminismoa, hezkidetza, laguntasuna, inklusioa eta arrazakeria landuko ditugu, besteak beste.

GAZTEAK

BATXILLERGOAK ETA DBH · BATXILLERGOAK ETA DBH ·



## Lehenengo aldia

Zer da lehenengo aldia zuretzat? Halakoetan denok gauza berdina pentsatzen dugu, momentu batez bada ere. Baina lehenengo aldia hori baino aunitzez gehiago da. Eskemak puskatu eta emozio ugari bizitzera gonbidatu nahi zaituztegu. Ikuskizun honen bidez, gizarteak gugan kateatutako eskemak apurtzen saiatuko gara. Prest al zaude?

Kontaketa honen bitartez, generoa, laguntasuna, bakardadea, eskola jazarpena, gezurrak, heriotza, estereotipoak, mikromatxismoa, maitasun erromantikoa, sexualitatea eta beldurrak landuko ditugu.



## Munduko emakumeak

Gure istorioen protagonistak ezagutu genituenean, sentitu genuen bazutela zer kontatu. Entzun genituenean, berriz, jakin genuen zerbait aldatu zela gure barrenean. Orain ulertu dugu istorio hauek ezin direla isiltasunean desagertu.

Obra honetan, Euskal Herrira bizitzera etorri diren hiru emakume migratzaileren eta bertan sortu den emakume baten istorioak kontatuko ditugu. Bizi esperientziak dira, gure ikuspuntua aldatuko duten gertaerak. Goazen galtzaileen ahotsa entzutera.

Kontaketa honen bitartez, migrazioa, generoa, laguntasuna, bakardadea, heriotza, estereotipoak, matxismoa, maitasun erromantikoa eta beldurrak landuko ditugu, besteak beste.



## Munduko emakumeak

Gure istorioen protagonistak ezagutu genituenean, sentitu genuen bazutela zer kontatu. Entzun genituenean, berriz, jakin genuen zerbait aldatu zela gure barrenean. Orain ulertu dugu istorio hauek ezin direla isiltasunean desagertu.

Obra honetan, Euskal Herrira bizitzera etorri diren hiru emakume migratzaileren eta bertan sortu den emakume baten istorioak kontatuko ditugu. Bizi esperientziak dira, gure ikuspuntua aldatuko duten gertaerak. Goazen galtzaileen ahotsa entzutera.



## Berriak herri

Zerk egiten du herria herri? Bere jendeak? Bere txokoek? Bere istorioek? Edo bere berriek? Kontaktuko ditugunak gertakizunak dira, istorioak, elezaharrak, anekdotak, behin berriak izan zirenak eta zahartu badira ere berri izaten segitzen dutenak. Ezagutu dezagun bada gure herria eta gure herritarrek behin ikusi entzun edo sentitu zutena. Harritzeko prest?

BEREXIAK · BEREXIAK · BEREXIAK · BEREXIAK ·

BEREXIAK

## Opariak, ipuinak eta komeriak

### Olentzero eta Mari Domingi

Urtero bezala, Itziar eta biok Olentzero eta Mari Domingiren etxean aritu gara auzolanean, opariak prestatzea ez baita lan erraza. Egun ederrak izaten dira, batez ere galtzagorriak datozenean. Halakoetan, Olentzero eta Mari Domingik istorioak kontatzen dizkigute eta laneguna jolasgarai bihurtzen dute. Entzun ditugun istorio batzuk altxorrak dira guretzat eta zuekin elkarbanatu nahi ditugu. Prest Euskal Herritik barrena bidaia ahaztezin bat egiteko?

## San juan gaua

Gau ederra dugu San juan gaukoa, espiritu txarrak, beldurrak eta kezkak gainetik kentzeko ezinhobea baita. Guk baditugu egun honen baitan gertatu ziren zenbait istorio eder. Baina, hauek ez ditugu erreko. Hauek entzunez suaren bueltan sortzen den goxotasuna eta berotasuna elkarbanatzen saiatuko gara.

## Mozorrolandia

### Iñauteriak

Nork ez ditu mozorroak maite? Hauen atzean ezkutatu eta mundua ikustea? Mozorroek asko ezkutatu arren, asko ikusten dute. Eta egun berezi hauetan bizi eta sentitutakoak kontatuko dizkigute, zakarrontzian topatutako mozorro berezi batzuek. Entzun nahi dituzu?

## Sorgin zoroa

### Gaba beltza

Urtero bezala, Itziar eta biok Olentzero eta Mari Domingiren etxean aritu gara auzolanean, opariak prestatzea ez baita lan erraza. Egun ederrak izaten dira, batez ere galtzagorriak datozenean. Halakoetan, Olentzero eta Mari Domingik istorioak kontatzen dizkigute eta laneguna jolasgarai bihurtzen dute. Entzun ditugun istorio batzuk altxorrak dira guretzat eta zuekin elkarbanatu nahi ditugu. Prest Euskal Herritik barrena bidaia ahaztezin bat egiteko?

# LANTEGIAK

## IRAKASLEENTZAKO

(bi modutan izan daitezke: trinkoak; bi saio, bakoitza 4 ordukoa, edo lau saiotan banatuak; guztira 8 ordu.)



### 1. LANTEGIA: Barruan dugun kontalaria ezagutuz

Lantegi honen bitartez, helburua da irakasleen ahozkotasuna, komunikazio gaitasuna eta narraziorako sena garatzea. Horretarako, Euskal Herriko kondairak ezagutuko ditugu, kontatuak izateko ahozkotasuna behar duten istorioak. Ipuin bati bizia ematen eta ipuinak gureganatzen ikasiko dugu, besteak beste.




### 2. LANTEGIA: Nola kontatzen ditugu albumak?

Lantegi honetan liburua kontakizunerako elementu bezala erabilita ipuinak nola kontatu ikasiko dugu. Zergatik ez du funtzionatzen zenbait albumek? Zeintzuk dira haurrak eta ipuinak konektatzeko estrategiak? Galdera hauei erantzun praktiko bat emanen diegu, eta sailkapen bat ere eginen dugu.

**Oharra:** batean zein bestean, lantegietan zehar, material berria ezagutuko dugu, profesional bakoitzaren klaseko errealitateari egokituko zaiona.

## IKASLEENTZAKO



### 1. LANTEGIA: Guk ere badakigu kontatzen

Lantegi honen bitartez, haurren gaitasun komunikatiboak landuko ditugu, baita adierazpenari dagozkionak ere. Jolasa izanen da horretarako erreminta nagusia, eta egun bakoitzean ikasleek erronka bat edukiko dute.

Adierazpenaz gain, memoria ere landuko dugu, kontatzerako orduan haien kontakizuna aberatsagoa eta zabalagoa izan dadin.

Lantegien zikloa borobiltzeko, azken egunean, haurrek kontaketa bat ikusteko aukera izanen dute.

AMELI
*ipuin kontalaria*

## ¿Quién es Ameli?

AMAIA ELIZAGOIEN VARELA (Oronoz,1994): Ameli disfruta tanto escuchando cuentos, como contándolos, y eso es precisamente lo que hace desde 2015. Ella es una cuentacuentos que, tanto sola, como acompañada con su banda de músicos, va a cualquier rincón de Euskal Herria a contar historias a todo aquel que quiera escucharlas.

En cuanto a los estudios, cursó ciclo y grado de Educación Infantil. Actualmente sigue estudiando en el Laboratorio de Teatro de Barcelona. Además, ha presentado programas en televisión y radio. Hoy en día se dedica plenamente a contar historias. El año pasado, publicó el cuento Amaiur (ilustrado por Begoña Durruty). Ameli vive embrujada por la oralidad y la memoria de nuestro pueblo, y siempre busca encontrar lo que le queda por aprender.

## ¿Qué es Ameli eta Xirrikituen jostunek?

Ameli eta Xirrikituen jostunek es un proyecto que aúna los cuentos y la música. Hoy en día Itziar Teietxea es quien se encarga de la parte musical. El cuento es el protagonista principal, y a través de la música, acercamos, sumergimos y traemos el público a nuestras historias.

Nuestro trabajo es el puente entre el público y las historias. Nuestro objetivo es, que en cada viaje que son las historias, ser ayudantes y transmitir la fuerza de los cuentos. Trabajamos nuestro pueblo y algunos de sus valores a través de las historias. Para conseguir todo ello, creemos que el placer y el juego tienen que estar presentes. En ello estamos.





# OBRAS
POR EDADES

LOS MÁS PEQUEÑOS · LOS MÁS PEQUEÑOS ·

12-36
MESES



## Itsasoko sekretuak
### (Secretos del mar)

Itziar y Amaia tienen una cita con el mar. Han preparado la mochila, y marchan hacia la playa. Han encontrado una gran caja en el mar; ¿será un tesoro? ¿Queréis saber que hay dentro de la caja? ¡No os arrepentiréis de embarcaros en este viaje!

En este teatro utilizaremos recursos ligados a la oralidad (poesía, canciones, bertsos, trabalenguas, etc). Además, la música y las marionetas cobrarán especial protagonismo, así como el material sensorial.



## Baserriko abenturak
### (Aventuras en el caserío)

Itziar y Amaia pasarán el verano en el caserío de sus abuelos. ¡Qué bonito es vivir entre animales! Pero no os creáis, porque ellos también tienen sus líos, sobre todo cuando no están sus padres y madres. Con esta obra, conoceremos algunos de los secretos, historias y tradiciones de los caseríos. ¿Tú también quieres venir al caserío?

En este teatro utilizaremos recursos ligados a la oralidad (poesía, canciones, bertsos, trabalenguas, etc). Además, la música y las marionetas cobrarán especial protagonismo, así como el material sensorial.

CHIQUILLOS Y CHIQUILLAS · CHIQUILLOS Y CHIQUILLAS ·

3-6
AÑOS



## Itsasbazterreko ipuinak
### (Cuentos a la orilla del mar)

¿Os habéis acercado alguna vez a la costa de Euskal Herria? Si vais al puerto, veréis a los pescadores, y si miráis bien, tal vez, encontréis algún barco pirata. Nosotras tuvimos mucha suerte hace poco: nos encontramos con la pirata Uhaina, y nos quedamos asombradas con sus historias. Ahora nos manda sus historietas en botellas de cristal y hemos guardado las mejores para ti. ¿Preparados para navegar?

Con esta narración trabajamos el feminismo, la coeducación, la amistad, la inclusión y el racismo, entre otros.



## Habiako ipuinak
### (Los cuentos del nido)

Nos encantan los nidos, y nos encanta ver cómo nace la vida cuando se cascan los huevos. Y lo que sucedió el otro día fue mágico. Cuando se cascaron los huevos, las historias nos empezaron a piar. Nosotras las escuchamos lo que tenían que contarnos. Ahora nuestras cabezas vuelan con esos cuentos, y nosotras queremos volar contigo. ¿Listos para empezar este vuelo?

Con esta narración trabajamos la mitología, el feminismo, la coeducación, la amistad, la inclusión y el racismo, entre otros.

GRANDOTES · GRANDOTES · GRANDOTES · GRANDOTES ·

7-12
AÑOS



## Ez esan inori
### (No se lo cuentes a nadie)

Euskal Herria está repleta de historias: algunas son muy conocidas, y otras no tanto. Según dicen, las leyendas más especiales se encuentran cuando se buscan con gusto. Nosotras empezamos en la búsqueda hace ya unos cuantos años, y podemos decir que ya hemos encontrado algunas joyas. Han sido secretos hasta ahora, pero queremos compartirlo con vosotros. ¿Preparados para esta nueva aventura?

Con esta narración trabajamos el feminismo, la coeducación, la amistad, la inclusión y el racismo, entre otros.



## Ainairak
### (Golondrinas)

Las ainairak es como se les dice a las golondrinas en euskera. Pero también se les decía así a las mujeres del Valle del Roncal. Pues dejaban el pueblo y marchaban a Zuberoa de otoño a primavera. En esta narración os contaremos las historias que se contaban entre ellas de camino a Maule. Haremos el viaje junto a ellas, a veces por estrechos caminos oscuros, y otras veces, a través de bellos paisajes. ¡Vámos a conocer mejor nuestro pueblo!

Con esta narración trabajamos las leyendas y las antiguas tradiciones, el feminismo, la coeducación, la amistad, la inclusión y el racismo, entre otros

ESO y BACHILLERATO · ESO y BACHILLERATO ·

JÓVENES



## Lehenengo aldia
### (La primera vez)

¿Qué es la primera vez para tí? Todos pensamos en lo mismo ante esa pregunta, aunque solo sea por un momento. Pero la primera vez es mucho más que eso. Queremos invitaros a romper los esquemas y vivir diferentes emociones. Con esta actuación intentaremos romper los esquemas que la sociedad nos inculca. ¿Listos?

Con esta narración trabajamos el género, la amistad, la soledad, el acoso escolar, las mentiras, la muerte, los estereotipos, los micromachismos, el amor romántico, la sexualidas y los miedos, entre otros.



## Munduko emakumeak
### (Mujeres del mundo)

Cuando conocimos a las protagonistas de nuestras historias, sentimos que tenían algo que contar. Cuando las escuchamos, sin embargo, supimos que algo había cambiado dentro de nosotras. Ahora comprendemos que estas historias no pueden ser silenciadas.

En esta obra contamos las historias de tres mujeres que han venido a vivir a Euskal Herria, y otra de una mujer de aquí. Son experiencias de vida, sucesos que cambiarán nuestro punto de vista. Escuchemos la voz de las perdedoras.

En esta narración trabajamos la migración, el género, la amistad, la soledad, la muerte, los estereotipos, el machismo, el amor romántico y los miedos, entre otros.

ADULTOS Y ADULTAS · ADULTOS Y ADULTAS · ADULTOS Y ADULTAS



## Munduko emakumeak
### (Secretos del mar)

Cuando conocimos a las protagonistas de nuestras historias, sentimos que tenían algo que contar. Cuando las escuchamos, sin embargo, supimos que algo había cambiado dentro de nosotras. Ahora comprendemos que estas historias no pueden ser silenciadas.

En esta obra contamos las historias de tres mujeres que han venido a vivir a Euskal Herria, y otra de una mujer de aquí. Son experiencias de vida, sucesos que cambiarán nuestro punto de vista. Escuchemos la voz de las perdedoras.



## Berriak herri
### (Noticias que hacen pueblo)

¿Qué hace que un pueblo sea pueblo? ¿Su gente? ¿Sus rincones? ¿Sus historias? ¿O sus noticias? Los pasajes de esta obra son sucesos, historias, leyendas, anécdotas que un día fueron noticia, y que, aunque hayan envejecido, siguen hoy siendo novedosas. Conozcamos pues nuestro pueblo y lo que nuestra gente una vez vio, escuchó o sintió. ¿Preparados para asombraos?

ESPECIALES

# Opariak, ipuinak eta komeriak
## (Regalos, cuentos y líos)
### Olentzero y Mari Domingi

Como todos los años, Itziar y yo hemos estado en casa de Olentzero y Mari Domingi ayudando, porque preparar los regalos no es tarea fácil. Suelen ser días increíbles, sobre todo cuando vienen los galtzagorris. Cuando vienen, Olentzero y Mari Domingi nos cuentas historias, y el trabajo se convierte en algo mucho más ameno. Algunas de las historias que nos han contado son todo un tesoro y queremos compartirlas con vosotras y vosotros. ¿Preparados para un viaje inolvidable por Euskal Herria?

# San juan gaua
## (La noche de San Juan)

La noche de San Juan es especial, ya que es el momento para ahuyentar malos espíritus, miedos y preocupaciones. Nosotras tenemos algunas historias que sucedieron en tal día. Pero estas no las vamos a quemar. Intentaremos crear ese ambiente cálido que se genera al rededor del fuego con estas historias.

# Mozorrolandia
## (El país de los disfraces)
### Carnavales

¿A quién no le gustan los disfraces? Esconderse en ellos y ver el mundo? Aunque los disfraces escondan muchas cosas, también ven otras muchas. Unos disfraces que hemos encontrado en la basura nos contarán qué han sentido en estos días tan especiales. ¿Quieres escucharlos?

# Sorgin zoroa
## (La bruja loca)
### Noche de las ánimas

Urtero bezala, Itziar eta biok Olentzero eta Mari Domingiren etxean aritu gara auzolanean, opariak prestatzea ez baita lan erraza. Egun ederrak izaten dira, batez ere galtzagorriak datozenean. Halakoetan, Olentzero eta Mari Domingik istorioak kontatzen dizkigute eta laneguna jolasgarai bihurtzen dute. Entzun ditugun istorio batzuk altxorrak dira guretzat eta zuekin elkarbanatu nahi ditugu. Prest Euskal Herritik barrena bidaia ahaztezin bat egiteko?

# TALLERES

## PARA PROFESORES Y PROFESORAS

(bi modutan izan daitezke: trinkoak; bi saio, bakoitza 4 ordukoa, edo lau saiotan banatuak; guztira 8 ordu.)



### 1. TALLER: Conociendo al cuentacuentos que llevamos dentro

El objetivo de este taller es desarrollar instinto para la oralidad, capacidades comunicativas y de narración de los profesores y profesoras. Para ello, conoceremos las leyendas de Euskal Herria. Son historias que necesitan oralidad para ser contadas. Aprenderemos a darle vida y a hacer nuestros los cuentos, entre otros




### 2. TALLER: ¿Cómo contamos los cuentos?

En este taller aprenderemos cómo contar cuentos utilizando el libro como elemento narrativo. ¿Por qué no funcionan algunos álbumes? ¿Cuáles son las estrategias para conectar los niños y los cuentos? Responderemos estas preguntas, y también haremos una clasificación.

**Aviso:** tanto en un taller, como en el otro, conoceremos material nuevo que cada profesor podrá adecuar a la realidad de su clase

## PARA ESTUDIANTES



### 1. TALLER: Nosotros también sabemos contar

En este taller, trabajamos la capacidad comunicativa y de expresión de los más pequeños. Para ello, el juego será la herramienta principal, y cada día los niños tendrán un desafío.

Además de la expresión, también trabajaremos la memoria, para que la narración de sus historias sea más rica y amplia.

Para cerrar el ciclo, el último día, los niños podrán ver una narración.